



UNITATEA	Giza Baliabideak
XEDEA	2025 Inauterietarako Trafiko laguntzaileak: aurkezpen epea luzatzea

ZINEGOTZI DELEGATU DEKRETUA

Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako azpisailako zinegotzi delegatuak, Josune Sanz Vidalek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

2025eko urtarrilaren 21eko 170/2025 Giza baliabideetako zinegotziaren ebazpen bidez inauterietan 12 trafiko laguntzaile hautatzea erabaki zen. Behin epea amaitzeaz dagoela, soilik hiru hautagai aurkeztu direnez, epea beste 7 egunez luzatzea proposatzen da, hautagai gehiago aurkeztu ahal izateko.

Horretan guztian oinarrituta, Zinegotzi delegatu honek

EBAZTEN DU

Lehenik.- 12 trafiko laguntzaileak bitarteko izaeraz izendatzeko epea beste zazpi egunez luzatzea, datorren otsailaren 12 arte, hau barne (13:00ak arte).

Bigarrenik.- Deialdi honi dagokion hedadura ematea, aldizkari, egunkari zein sare sozialetan iragarkiak argitaratuaz.

|

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Josune Sanz Vidal

Fernando Javier Araniguriá Rodrigo



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025PDLP0001-Ebazpena/Decreto ()